

Elgetan, 2025eko abenduaren 13an

Alkate hori:

Idatzi honen bidez, Elgetako EAJ-PNV udal taldetik 2026. urterako aurrekontuari begira planteatzen ditugun proposamenak helarazten dizkizugu:

- 1. Eguneko zentro berriaren proiektuari behin betiko bultzada ematea (50.000€):** 2025ean, jadanik badaude 9.000€ aurreikusita San Roke kaleko eraikinaren bideragarritasun-azterketa egiteko. Hau aldekoa bada, eta Foru Aldundiak proiektuari oniritzia ematen badio, eraikinaren erosketari heldu beharko lioke Udalak lehenbailehen. Funtsezko pausoa da, egitasmoa datozen urteetan errealitate izatea nahi badugu.
- 2. Torrealdean bertan behera lagatako eraikuntza-egitura garatzea (100.000€):** Ezinbestekoa deritzogu ahalik eta azkarren eremu honetan etxebizitzak egiteko balizko aukera guztiak mahai gainean jartzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Torrealdea da momentu honetan Elgetak duen aukerarik zentzuzkoena; besteak beste, jada prest dauden orubea eta egitura aprobetxatzea ahalbidetuko lukeelako, martxan dagoen azterlanaren ondorioek diotena gorabehera.
- 3. Udaletxea eraberritzeko aurreproiektua idaztea (5.000€):** Udal eraikin nagusiaren bulegoak zaharberritzeko, eta egun dituen energia-eraginkortasunari, hezetasunari, irisgarritasunari eta espazioaren aprobetxamendu faltari lotutako arazoei konponbidea emateko lehen pausoa ematean datza. Azken helburua udal langileei lan-baldintza egokiak bermatzea, eta herritarrei arreta zerbitzu modernoak zein espazio-aukera berriak eskaintzea izango litzateke.
- 4. Adierazpen askerako panelak instalatzea (5.000€):** Agerikoa da gaur egun kartelak nonahi ipintzen direla herriko paretetan zehar, horrek eragiten duen kale-itxura narrasarekin. Pare bat batzordetan aipatu izan da kezka hau. Horren aurrean kartelak, iragarkiak edota bestelako adierazpenak ipintzeko hiruzpalau espazio egokitzea proposatzen dugu. Horiek, ahal dela, kartelak ipintzea ohiturazkoa den lekuetan kokatuko dira. Honekin batera, herrian edozein adierazpen zelan zabaldu daitekeen arautzeko ordenantza bat onartu beharko litzateke.
- 5. Informazio-pantaila bat jartzea (8.000€):** Mendizaleen plaza ingurua kokaleku egokia da, eta laugarren proposamena osatuko luke. Besteak beste herriko agenda kulturalaren, udaleko gaurkotasunaren, kirol-eskaintzaren, eguraldiaren, kontzientziazio-kanpaina ezberdinen edota autobus-ordutegien berri emateko balioko du. Gainera, iragarkiak jartzeko aukera egongo litzateke udalari diru-sarrera gehigarria emanaz.
- 6. Udal artxiboa profesionalizatzea (15.000€):** Elgetako Udaleko artxiboan dauden dokumentu historikoak eta espediente administratiboak katalogatu, antolatu eta artxibatzea da helburua; kontserbazio, irisgarritasun eta kudeaketa administratibo egokia bermatzeko. Jarduketa honen barruan sartzen dira dokumentu-funtsa berrikustea, sailkatzea eta antolatzea, deskribapen artxibistikorako tresnak sortzea edo eguneratzea, eta irizpide bateratuak ezartzea, udal-dokumentazioaren kontsultaren eta izapidetzearen eraginkortasuna hobetzeko asmoz.
- 7. Garapenerako lankidetzarekin konpromisoa indartzea (ehunekora heltzeko beharrezko diru-kopurua):** Debagoieneko GKEek egindako eskaera bere gain har dezala udal gobernuak. Hau da, udal aurrekontuaren % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratzea, Nazio Batuen Erakundeak hartutako konpromisoarekin bat etorriz eta Garapen Jasangarriko

Helburuen bidez indartuta. Elgetak % 0,24 baino ez du bideratzen horretara gaur egun Bideberri Mankomunitatearen bitartez, nazioarteko helburutik oso urrun dagoen ehunekoa.

Hurrengo orrialdean duzu atxikita hainbat proposamen zehazten dituen taula.

Adostasunak lantzeko prestutasun osoarekin, zure erantzunaren zain gelditzen naiz.

Iker Laka Barandika
EAJ-PNV udal taldeko bozeramailea

KO D	PROIEKTUAREN AZALPENA	AURREKONTUA	FINANTZAKETA
1	Eguneko zentro berria - Bideragarritasun-azterketa egitea (2025)	2025: 9.000,00 € Bideragarritasun- azterketa	- Gipuzkoako Foru Aldundia

	- San Roke kaleko eraikina erostea: Egindako azterketak bideragarria dela ondorioztatzen badu, kokapen berriaren eraikina eskuratu beharko litzateke.	2026: 50.000,00 € Eraikin berria erosi	- Aurrezki Arrunta
2	Torrealdeako eraikuntza-egitura garatzea - Lursailak eta eraikita dagoen obra Udalak eskuratzea. Egokiena Eusko Jaurlaritzak babestutako etxeak eraikitzea izango litzateke. Horretarako, Jaurlaritzak lurzorua lagapena eskatuko dio Udalari.	100.000,00 €	- Dirulaguntzak - Gipuzkoako Foru Aldundia
3	Udaletxea eraberritzea - Aurreproiektua idaztea: (5.000,00 €) Zerbitzuen kokapenak eta beharrak aztertu. (Harrera eta itxaron-gunea, jendaurreko bulegoak, bilera-gelak, funtzionarioentzako lan-eremua, artxiboa eta biltegia, batzar aretoa, komunak, mugikortasun urriko pertsonentzako sarbidea, segurtasuna eta sarbide-kontrola...) - Exekuzio proiektua idaztea: (20.000,00 €) Materialak, instalazioak, altzariak... - Ordezko kokapena: (30.000,00 €) Obrak irauten duten bitartean aldi baterako lokalak egokitu behar dira, udal zerbitzuek jarraipena izan dezaten. - Obraren exekuzioa: (800.000,00 €) Obra exekuzioa proiektuan jasota dagoen bezala.	2026-2027: 25.000,00 € Aurreproiektua eta exekuzio proiektua 2028-2030: 30.000,00 € Ordezko kokapena 2029-2030: 800.000,00 € Udaletxea eraberritzea	- Gipuzkoako Foru Aldundia - Mailegua - Aurrezki arrunta